

BERTSOLARITZA. Gaur 19:00etan izango dira hileta elizkizunak Hernaniko San Joan Bataiatzailearen elizan

Paulo Txikia hil da

Txirritaren belaunaldia eta hurrengoa lotu zituen bertsolaria atzo zendu zen, 90 urterekin

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

Atzo goizean utzi zion betiko bertsotan egiteari Pablo Zubiarra *Paulo Txikia* Hernaniko bertsolari ezagunak. Jada 90 urte beteta, zahartzaroak ekarri zion heriotza Hernaniko Zaharren Egoitzara. Han bizi izan da azken urteotan Zubiarrain. Gaur izango dira hileta elizkizunak,

arratsaldean, 19:00etan, San Joan Bataiatzailea elizan.

Hernaniko Ereñotzu auzoko Telleria baserrian jaio zen 1912an. Gaztea zela aitonarekin batera artzain jardun zuen Adarra mendian. Hamalau urterekin menditik jaitsi eta fabrikara sartu zen, baldosak egitera. Handik Astigarragara alde egin zuen eta oinetako denda

bat jarri zuen. Oinetakoak konpontzen aritzen zen bertan.

«Oso gizon goxoa eta polita zen, oso atsegina», adierazi dio EGUNKARIARI Imanol Lazkano Bertsozaleen Elkarteko lehendakariak Paulo Txikiari buruz. Ildo beretik, gizon fina zela esan digu Joxe Lizaso bertsolariak: «Harek eginiko traizio gutxi izango da. Finegia ere bazen

mundu horretan ibiltzeko, bertsolaritzan ere baziren trapuke-riak-eta».

Sagardotegietako fruitua

Jaio eta hil den herrian bertan, Hernanin, egin zen bertsolari. Familiatik zetorkion bertsotarako joera, baina batik bat, han oso ohikoak diren sagardotegietan hezi zen bertsolari gisa:

«Gaur egungo bertsolari gazteak unibertsitatekoak dira, baina garai hartan ez zen horrelakorik. Sagardotegiak eta taberna zuloak ziren orduko bertso eskolak», azaldu digu Paulo Txikia «oso ondo» ezagutu zuen Txomin Garmendia bertsolariak. «Txirritaren eskola berean hezitako bertsolaria izan da. Astigarraga, Hernani... inguru horretako fruitua zen», uste du Imanol Lazkano Bertsolazale Elkarteko lehendakariak, bertsolariaren eta herriaren arteko loturari buruz.

Bertso eskolak ez ezik, bertsotarako plazak ziren 36ko gerraren aurreko eta ondorengo sagardotegiak. «Paulo Txikia oso hernanizalea zen, baita sagardoalea ere. Nik esatea ez dago ondo, baina garai hartako bertsolariek jan-edanean ederki jarritakoan zabaltzen zuten bertsotarako iturria», aitortu du Garmendiak. Bertso txapelketetan ere ibili zen Paulo Txikia.

Bertsolari ofizioa barru-barrutik nola bizi zuen gogoratzen du Lazkanok: «Bizi-bizia zen bertsotan, umore piska bat ere bazuen... Bertsotan garbi-garbi egiten zuen». Bertsotan, sentitzen zuena, «arima eta guzti», botatzen zuela dio harekin plaza dezente egin dituen Joxe Lizaso bertsolariak: «Ez zuen guk askotan egiten dugun bezala edozer gauza botatzen; hura bertsotara joaten zenean bertsotan jarduten zuen».

Txapelketa batean batera aritu ziren kantari Lizaso eta Paulo Txikia, Donostiako Urumea frontoian: «Bigarrena atera zen. Mitxelena izan zen garaile». Txapelketa haren ondotik beste bat izan zen Sara aldean. Hamar sari zeuden eta hogei bertsolari inguruk esku hartu zuten. Mitxelena «gizajoari» haimargarren saria eman zioten. Handik puska batera Astigarragan txapelketa hura gogora ekarri eta honako hau bota omen zuen Mitxelenak: *Gizonak hartzekoa ez al degu pena / Donostian aurrea ta Frantzian azkena*. «Txikiak ezin zuen isilik egon», mintzo da Lizaso «eta hau bota zuen: *Ikusiko litzateke zer daukan goguan / baino ez dago giro gure inguruan / Donostian ere azkena zuk behar zenuan / gauza juzgatu balitz behar zen moduan*. Ederra sartu zion, horretan ikaragarri zorrotza zen».

Bi belaunaldiren arteko zubia

Bai Txomin Garmendia bai Imanol Lazkano gutxi aritu ziren Paulo Txikiarekin bertsotan: «Hiru bat plaza egin nituen berarekin. Gu plazetan hasiberriak ginela, hari gelditzeko garaia iritsi zitzaion», dio Lazkanok. «Nahiko garaiz utzi zuen



MANU MUJICA

Pablo Zubiarra *Paulo Txikia* 1996an ateratako argazki batean.

Bertsoa zainetan

PAULO TXIKIAREN ESANAK. «Nire buruan beti bertsoa ibiltzen dut bueltaka. Bertsoari diodan maitasunagatik»

A.O. | DONOSTIA

Bertsotan hizketan baino gusturago aritzen nintzen». Paulo Txikiaren hitzak dira goikoak, 2001eko azaroaren 25ean *Argia* aldizkariak eginiko elkarrizketan argitaratuak. Gaztea zeneko garaiaz ari zen, baina zahartu eta gero ere maiz aritzen zen bertsotan: «Nire buruan beti bertsoa ibiltzen dut bueltaka. Bertsoari diodan maitasunagatik. Eskopeta, ehizeko txakurra eta bertsoa. Hiru horiek nire-nireak ditut».

Bertsolaria «jaio» egiten zela zioen berak, zainetan eramaten zela bertsolari izaera. Handia zen bere sena, hama-



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

1981ko Bertsolari Eguna, Paulo Txikiaren omenetan.

lau urte besterik ez zituela Txirritari bertsoa botatzera ausartu baitzen. Honela gogoratzen zuen une hura: «Lehen-

gusua eta biak eskaileretatik gora igo, eta han ari ginen 'bota bihar ziou' eta 'bota bihar ziou'. Eskaileretatik bota

nion bertsoa eta alde korrika!». Berehala hasi zen Txirritarekin plazaz plaza.

«Gaur bezala ez zegoen beste herrietara joateko konbinaziorik», dio herririk herri bertsotan nola ibiltzen ziren azaltzeko. «Hartu bizikleta eta benga, bizikletan triki-traka», ibiltzen ziren alde batetik bestera, herrietan egun bat baino gehiago igaroz. Bizikletan ibili arren eta ez omen zen oso osasuntsua bertsolarien bizimodua: «'Gaur gutxi edango diat bada!' esaten da, baina, nahi ez duzula ere, inguruko denak jan eta edanean ari direnez halaxe bukatzen duzu beti».

Hala ere, taberna eta sagardotegiak oso maiteak zituen, «orduan baserrietan bertsolari koskor asko zen, tabernan bilduta bertsotan egiten zuena». Egungo bertsolari gazteen artean Jexux Mari Irazu zuen gogokoen.